

# **IKASTEKO ESKUBIDEA GAUZATZEKO, EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA**

Ikastea guztiok onartzen dugun balorea da. Halaber, nazioarteko legediak nahiz espainiar legediak jaso du eskubide hori. Gaur egun, ordea, 2005-06 ikasturtearen hasieran, euskal presoek oraindik ez diete ikasteko eskubidea onartu, ez euskaraz ezta hemengo ikastetxeetan ere.

Espainiako espetxeetan dauden euskal ikasle presoek ezin dute ikasi, Madrilgo UNEDen ez bada. Izan ere, 2002-03 ikasturtean kanporatu zituzten ikasle presoak EHUtik eta bertan behera utzi ertainetako ikasketak. Ikasturte hartan EHUn 301 ikasle preso zeuden 25 karreratan banatuta, eta ia 200 ikasle preso Hizkuntza Eskoletan matrikulatuta edo ertainetako ikasketak egiten. Ikasteko eskubide urraketa ondoz, hogeituroko ikasketa prozesua etenarazi zuten.

Horri guztiari, ikasle preso gehienak espainiar nahiz frantziar estatuetakoa kartzelatan sakabanatuta daudela gaineratu behar diogu eta, sakabanaketa politikak ikasle presoen eta ikastetxe nahiz unibertsitateen arteko lotura eten egiten du: tutore eta ikasle presoen arteko harremanik eza, tutoreei presoekin harreman zuzena izatea debekatu egiten zaielako; ikasteko materiala jasotzeko zailtasun handiak izaten ditu ikasle presoak, sarri, azterketa pasa ostean iristen delarik, bidean galtzen ez badira; ikasketa guztia bakardadean burutu behar izatera, ikasketa bera burutzen ari diren presoak sakabanatuak daudelako; ikasteko bitarteko egokien falta, hala nola, ordenagailuak, idazmakina...

Honen guztiaren aurrean, idazki honen sinatzaileok zera adierazten dugu:

1.- Euskal presoek euskal unibertsitate eta ikastetxeetan eta euskaraz ikasteko eskubidea dute. Egun ukatua dagoen eskubide hori errespetatzeko eskatzen diogu Madrileko Gobernuari.

2.- Euskal presoak Euskal Herriratzeko aldarriarekin bat egiten dugu, preso orok ikasteko eskubidea izan dezan.

3.- Madrileko eta Pariseko gobernuei euskal presoek ikasketak burutu ditzaten erraztasunak emateko exijitzen diegu, besteak beste, tutore eta ikasleen arteko harreman zuzena ahalbideratzeko eta ikasteko beharrezko diren bitarteko guztiak jartzeko.

4.- Hori guztia gauzatu dadin, norbanako, eragile nahiz instituzio orori bide horretan lan egiteko eskatzen diogu. Ildo horretan, Etxerat elkarteak azken ostiralero egiten dituen elkarretaratze isilekin bat egiten dugu eta, gizarte osoari bertan parte hartzeko deia luzatzen diogu.

Euskal Herrian, 2005eko azaroan

